

Artium Museoa
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa
www.artium.eus

Lorea Alfaro
do mess with me
Testuinguruak bilduma batetik abiatuta



<3 S P S <3 I N K, 2016-2017. Lorea Alfaro. Colección Museo Artium (Colección compartida)

A02 aretoa, 2021eko irailaren 17tik 2022ko urtarrilaren 16ra

Argitalpena: *do mess with me*. Lorea Alfaro/Rafa Castells.

Argibide gehiago: www.artium.eus

ARTIUM MUSEOAK DUELA GUTXI EROSITAKO LOREA ALFAROREN LANAK AURKEZTU DITU *TESTUINGURUAK BILDUMA BATETIK ABIATUTA* PROGRAMAREN BARRUAN

do mess with me erakusketan < 3 S P S < 3 BLOOD eta < 3 S S < 3 INK bideoak daude ikusgai, Eusko Jaurlaritzaren sektore artistikoari laguntzeko planaren barruan 2020an erosiak.

Testuinguruak bilduma batetik abiatuta programaren, azterketa-kasuen eta *Zeru bat, hamaika bide* erakusketaren barruan egiten diren txandaketen helburua, museoko funts garaikide bikainaren ikusgaitasuna areagotzea da.

Artium Museoa, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa, *Testuinguruak bilduma batetik abiatuta* erakusketa programaren barruan, Lorea Alfaro artistaren bi bideo aurkeztu ditu, <3 S P S < 3 BLOOD eta <3 S P S < 3 INK, museoaren bildumarako berriki erosiak (A02 aretoan, 2022ko urtarrilaren 16ra arte). *do mess with me* erakusketan, bi pieza huez gain, Alfaroren lanen sorta bat ere Bildu da, horien artean *Paski* eta *Paretara*, paper margotuarekin egindako piezak, eta *Tú re-post* bideoa. Lorea Alfaroren eta Rafa Castells argazkilariaren arteko elkarrizketa biltzen duen *do mess with me* argitalpena ere plazaratuko da erakusketarekin batera. *Testuinguruak bilduma batetik abiatuta* museoaren funtsetan sartu berri diren artisten ekoizpena ezagutzera emateko erakusketa sorta bat da.

<3 S P S < 3 (2016-2017) seriea, bi bideoak barne hartzen dituena, erretratu modu garaikide bat da. Erretratatuarentzat, trap espainiarraren eszenako abeslari ezagun batentzat, neurrira egindako zetazko alkandora baten diseinuan du jatorria. Lorea Alfaroren ustez, alkandora diseinatzea molde bat egitea bezala da: «Moldea pieza [ALKANDORA] edo pieza multzo akoplatu bat [PATROIA] da, barrutik hutsa, baina lortu nahi den etorkizun solidoaren [HURA] kanpoko xehetasun eta aztarnak dituena. Oro har, molde malgu bat [ZETA] formari eusten dion kontra-molde zurrun [BIDEOA] edo “ama” [AMA] batekin muntatzen da, deformazioa saihestuz [BIDEOA]. Molde malguen abantaila da moldea kentzea finago egiten dela [SILK] eta emaitza hobea lortzen dela; gainera, arinagoa [SILK] eta iraunkorragoa [ARTEA] da».

Egilearen senide batek besaurrean zuen tatuajea errepikatzen da alkandoraren estanpatuan. Erakusketak bi bideo hauen eta aurreko bi lanen —*Paretara* eta *Paski* (biniloa hormaren gainean, 2014-2021)— eta ondorengo baten —*Tú, re-post* (2017) bideoa— arteko harremana erakusten du. Alfaroren lan osoan agertzen diren harreman horiek agerian uzten dute artista honek arreta, zaintza eta denbora mota batetik datozen elementuak, eguneroko objektuetan ez daudenak, bizitzan txertatzeko duen interesa.

Lorea Alfaro (Estella-Lizarra, 1982) artista da. Haren azken lanak ondoko erakusketa hauetan ikusi ahal izan dira: *2020*, Jon Otamendirekin batera (Joan Miró Fundazioa, 2021), *Un mundo sin cualidades* (CarrerasMugica Galeria, 2020) eta *No lo banalices* (CarrerasMugica Galeria, 2018, 948Merkatua, 2019). 2014 urteaz geroztik (3l3a) LA marka hutsaren bidez lan egiten du.

Bestalde, erakusketa hau dela eta, **#Bilduma** saileko ale berri bat argitaratu du museoak. Bertan, haren ondare-funts publikoa osatzen duten obra eta artistei buruzko idazle, komisario eta historialarien testuak argitaratzen dira.

Testuinguruak bilduma batetik abiatuta

Testuinguruak bilduma batetik abiatuta, Lorea Alfaroren erakusketa hau barne hartzen duen programa, Artium Museoaren Bilduma —funts garaikide paregabea, izaera publikokoa, eta ia 2.400 artelanez osatua— ezagutzera ematea helburu duten beste ekimen batzuei gehitu zaie 2021ean. Horrela, *Zeru bat, hamaika bide* Bildumaren erakusketa iraunkorraz gain, A01 aretoak 1977-2002 aldiaren kronologiari eta haren inguruko ikerketa-lanei lotutako azterketa-kasuak eta erakusketak hartzen ditu. *Zeru bat, hamaika bide* erakusketari ere aldaketak egiten zaizkio tarteka eta barne-ibilbide berriak sotzen dira. Museoaren argitalpen-programaren barruan *#Bilduma* sailaren sorrera helburu horren beraren barruan kokatzen da.

Museoaren erosketa-programak artearen arloan gaur egun garatzen ari diren eztabaidak eta praktikak esploratzen eta horien berri ematen laguntzen du, eta, gainera, ezinbesteko tresna da bere dinamismoa eta konplexutasuna ezaugarri dituen une bati pultsua hartzeko. Hori da Museoaren funtsezko eginkizunetako bat: ondare garaikidearen ekoizpena sustatzea eta artistak eta haien ekoizpenak bultzatzea.

Daniel Llaría, Nadia Barkate eta Lorea Alfaro dira 2021ean programa honetan parte hartu duten artistak

Artium Museoaren erakusketak

Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian. Artium Museoa Bilduma

Katinka Bock. Logbook. 2021eko urriaren 17ra arte

Xabier Salaberria. Arkitekturarik gabekoerakusketa bat. 2021eko urriaren 17ra arte

Norberak eraikitzea. Pieza solteak. Jolasa eta esperientzia. Antonio Ballester Moreno. 2021eko azaroaren 1era arte

Roisalind Nashashibi. Z aretoa. 2021eko azaroaren 14ra arte

Lorea Alfaro. Testuinguruak bilduma batetik abiatuta. 2022ko urtarrilaren 16ra arte

Bigarren bidea (Zeru bat, hamaika bide). Artium Museoa Bilduma

Aurki

José Félix González Placer. Etxegarai'ko goti. 2021eko irailaren 24tik aurrera

Txaro Arrazola. Ustiaketa bikaina. 2021eko urriaren 29tik 2022ko martxoaren 13ra

Mariana Castillo Deball. Amarantus. 2021eko azaroaren 5etik 2022ko martxoaren 13ra

Eric Baudelaire. Z Aretoa. 2021eko azaroaren 25etik 2022ko urtarrilaren 23ra